

## **ARESOKO UDALAK BAT EGINGO DU AURTEN MENDIALDEAKO AZOKA IBILTARIAREKIN**

***Aurreko urtean antolaketan parte hartu bazuen ere, aurtten lehenengo aldiz, datorren igandean (abuztuak 15) alegia, azoka hartuko du herriko plazan.***

Mendialdeako Azoka Ibiltariak, jada ezaguna denez, Nafarroako txoko honen lurrarekin eta animaliekin errespetuan ekoizten diren produktu osasungarriak sustatu, ikusarazi eta saltzeko helburua du. Hori guztia, ekonomia solidarioagoa, arduratsuagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko apustu sendoan oinarritzen da. Aresoko Udalak, aspalditik egin zuen bat helburu eta filosofia honekin. 2018an, Leitzako udalarekin batera, “*Bertatik Bertara Dinamika*” izeneko lan-dinamikan parte hartu zuen eta, bertan, zonaldeko kontsumo talde, ekoizle eta Cederna Garalur-rekin batera, Mendialdeako Azoka ibiltariaren hastapenak finkatu ziren.

Azoka ibiltaria 2020an abian jarri bazen ere, pandemia dela eta, aurreko urtean baztertu egin zen Aresoko herrian bertan azoka egiteko aukera. Baina aurtengo edizioan, azoka bera sendotuta izanda. 2020ko esperientzia kontuan hartuta, osasun-neurriak ongi lotuta, eta zonaldeko hainbat eragileekin lankidetzan egonda, Aresok "bere azoka" izango du.

### **Aresoarrak protagonistak: hainbat postu eta...banarrak**

Areso, herri txikia da (283 biztanle 2020an) eta oraindik ere biztanleria aktiboaren kopuru inportantea lehen sektorean aritzen da. Nekazaritzak eta abeltzainzak, oztopoen gainetik, bizirik diraute hainbat baserrietan, eta azokan, jakina, presentzia izango dute.

Guztira, egongo diren 24 postuetatik, 7 Aresokoak izango dira. Ardi-gazta, haragia, garaiko barazkiak, fruta eta eskulanen produktuak eskaintzeaz gain, herriko dozena bat baserri ekoiztutako banabarren postu berezia izango da. Tolosako babarrun motako produktu hau oso estimatua da zonaldean eta baserri guztietako soro txikietan ekoizten da. Hori dela eta, denon artean postu bat antolatu dute non banabar gozo hauek salgai egongo dira.

Eskaintza honekin batera, Mendialdeako Azoka Ibiltarian ohikoa denez, inguruko hainbat ekoizle eta artisauen produktuak egongo dira erakusgai eta salgai. Bisitariek aukera ederra izango dute Mendialdeako produkturik onenak dastatzeko eta, nola ez, erosteko: taloak, gazta, fruta, hestebeteak, eztiak, pateak, barazkiak, etab. Eta, beti bezala ere, zonaldeko artisauen eskulanak eskura izango dute: zapatak, egurrezko tailak, pitxiak, ukenduak, zeramika, larrua, etab.

## **12 euskal artzain-zakurren erakusketa**

Ekoiztutako eta egindako produktuez gain, Aresoko azoka honek oso eskaintza berezia izango du igande honetan, bisitarien oso gustukoena izango dena: “euskal artzain” arrazako zakurren erakusketa.

Zalantzarik gabe, Aresoko baserriek eta abeltzaintzak oraindik ere duten garrantziaren adierazle esanguratsu bat herriko 12 artzain-zakurren presentzia izango da; Aresoko beste hainbeste baserriatik etorritakoak. “Euskal artzain” arrazako zakurrak dira honakoak, baserri bakoitzean mimoz zainduak eta irakatsiak, artaldeak zaindu eta gidatzeko. Ekitaldia, berez, zakur horien “erakusketa” izango da. Zakurrak jabeekin egongo dira, eta speaker/hizlari batek azalduko ditu zakur bakoitzaren ezaugarriak, artzaintzaren funtzioak eta ezaugarriak, lan-metodoa, etab. Azoka ondoan izango da erakusketa eta egunean zehar zabalduko da bisitarien gozamenerako.

Era berean, hizlari/speaker azokaren "barrenak" bisitariari kontatuko dizkie: postuen deskribapena, ekoizleak eta artisauak aurkeztu, euren produktuak ezagutarazi, etab.

Goizean zehar ere, musika-giroa izango da azokan bertan.

Azoka Aresoko plazan izango da. 10:30ean hasiko da eta 14:30ak arte iraungo du.

Azokaren antolakuntzan parte hartu dute Aresoko Udalak berak, Cederna Garalurrek, Habelarte elkarteak eta Plazaolako Turismo Partzuergoak.

Jakina, agintari eskudunek gomendatutako osasun neurri guztiak errespetatuko dira, eta bisitariak neurri horiek errespetatu ditzaten zainduko da, megafonia bidezko mezu jarraituen bidez.

Areso, 2021eko abuztuaren 10ean